



GOTZON GARATE

BEKA 2009

IKERKETA ESPARRUA:
ELGOIBARKO TOPONIMIA

GOTZON GARATE
BEKA 2009

Dokumentazioa
aurkezteko epea:

2009ko irailaren 1etik 30era.

Izen ematea
eta informazioa:

ELGOIBARKO UDALA

Euskara Saila

☎ 943 744 366 · euskara@elgoibar.org

Nafarroa plaza, 3 -Kultur Etxea-
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)



Elgoibarko Udala



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOTZON GARATE BEKAREN LEHENENGO DEIALDIA

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1.1. Bekaren helburua: Elgoibarko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea.
- 1.2. Diru-zenbatekoa: Bekaren zenbateko osoa 20.000 eurokoa izango da.
- 1.3. Iraupena: Lana egiteko epea 14 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- 1.4. Beka hau ez da ikerketaren ordainsaria izango, beka egiteko laguntza baizik.
- 1.5. Lana euskaraz aurkeztuko da eta horren laburpena ele bitan.
- 1.6. Lana Udal Euskara batzordeburuaren ardurapean burutuko da Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

2. ESKATZAILEAK

Eskatzaileak (edo lantaldea bada kideetako batek gutxienez) Euskal Filologia edo Historia ikasketak burututa izan beharko ditu, edo ikasketen azkeneko kurtsuan egon beharko du; edo bestela, euskal hizkuntzalaritzari buruzko ezagupena eta trebakuntza egiaztatu beharko ditu.

Toponimoen biltze eta finkatze egitasmoa Elgoibarren gaiari buruzko txostena aurkeztu behar du.

Esleipendunari proiektuaren erantzule izango den zuzendari jarriko zaio, proiektua zuzentzeko eta koordinatzeko. Zuzendari hori Euskaltzaindiak izendatuko du.

3. ESKABIDEAK

Interesatuak Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean aurkeztu beharko dituzte eskabideak, honako agiri hauekin batera:

- Espediente akademiko xehatu eta osoa. Jasotako kalifikazioak eta beraien datak agertu beharko dira, jatorrizko agiriaren edo agiriaren konpultsatutako fotokopiaren bidez. Lantaldeen kasuetan, partaide orok aurkeztu beharko du bere espediente akademiko osoa. Eskatutako ikasketa arautuak egin direla ez bada frogatzen, hizkuntzalaritza ezagupenen, lan esperientziaren edo ezagupen horien adierazgarri diren diploma edo ziurtagiriak aurkeztuko dira.
- Curriculum Vitae. Lantaldea baldin bada partaide guztiena aurkeztu beharko da. Era berean, lanbide eta ikerketa esperientzia, egin dituen/dituzten argitalpenak, beste hizkuntza batzuen ezagutzak eta gainerako datu aipagarriak ere adieraziko dira.
- Lana nola egingo lukeen/luketen azalduko duen memoria bat, ahalik eta modurik zehatzenean eta, bereziki, atal hauek garatuko dituena:
 - ¥ Ikerketaren etapak.
 - ¥ Erabiliko den metodologia.
 - ¥ Dituen/dituzten bitarteko eta baliabideak.
 - ¥ Eskatzailearen/eskatzaileen nortasun agirien kopia.
- Eskatzailearen edo eskatzaileen NANA edo baliokidea.
- Proiektuaren aurrekontu xehakaturia
- Eskatzailea onuradun izatea eragotziko duen kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzen duten lekukotasunak, ziurtagiriak edo zinpeko aitortpena.

Eskabideak eta gainontzeko agiriak eta geroago egon daitekeen korrespondentzia honako helbide honetara bidaliko dira:

ELGOIBARKO UDALA - Euskara Saila

Nafarroa plaza, 3 –Kultur Etxea– AE 20870 Elgoibar

Erreferentzia: Toponimia Beka

4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Memoria eta agiriak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era artekoa izango da.

Eskatutako zerbituak betetzen ez duten eskabideak eta agiriak jasotzen badira, 10 eguneko epea emango da, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko.

5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Beka hau norgehiagoka bidez emango da. Horiek horrela, beka Elgoibarko Alkateak esleitu du, Epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Epaimahaia honako hauek osatuko dute.

Epaimahaiburua:

¥ Udalaren Alkate-Presidentea edo berak izendatutako ordezkaria.

Epaimahaikideak:

¥ Euskara batzordeburua edo berak izendatutako ordezkaria.

¥ Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen ordezkari bi.

¥ Alkateak izendatutako idazkaria.

Balorazioa egin aurretik, Euskal Filologia edo Historia ikasketa arautuak frogatzen ez dituzten eskatzaileak lehiaketan onartzeko edo ez onartzeko irizpideak ezarriko ditu epaimahaiak.

Hauek izango dira adjudikazio irizpideak, neurri egokiekin:

- Eskatzaileek aurkeztutako proiektuaren edo memoriaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta berorren inguruan epaimahaikideak formulatutako galderei erantzun beharko dizkiete: Otik 30 puntura.
- Onomastikari buruzko ikasketa espezifikoa, ikastaroak, etab.: Otik 10 puntura.
- Onomastikarekin zerikusi zuzena duten lanetan esperientzia: Otik 10 puntura.
- Inguruko euskalkiaren ezagutza praktikoa (ahozko proba egingo du epaimahaiaren aurrean): Otik 10 puntura.
- Elgoibar edo inguruko herriei buruzko lanengatik: Otik 10 puntura.

Eskatzaileak gutxienezko baldintzak bete ezean, Epaimahaiak bere gain hartzen du deialdi hau indarrik gabe uzteko ahalmena. Era berean, zenbait ordezkari izendatuta izango ditu, gutxienezko betebeharrak betez gero, bekadunek bekari uko egiteagatik edo beste arrazoiren batengatik, beka hutsik gelditzen bada; horretarako lehenetsuna ordezkari hurrenkeraren arabera izango da.

Eskatzaileek, beka eskatze hutsagatik, Epaimahaiaren ebazpenaren aurkako ekintza judizial edo estrajudizial guztiei uko egiten diete.

6. BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

- Bekaren onarpena idatziz adieraztea hasi eta 7 eguneko epean.
- Lanaren garapenari buruz aurkeztutako memoriaren arabera txosten bat aurkeztea hiru hilero.
- Egindako lanaren ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak Elgoibarko Udalari helaraztea.
- Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezin izango da egin Elgoibarko Udalak espresuki emandako baimenik gabe.
- Euskaltzaindiaren ordezkariak emandako gomendioak betetzea eta lana burutzeko prozedura eta metodologia jarraitzea.
- Bekaren amaieran lan osoa aurkeztu beharko da. Baita amaiera-lanaren laburpena ele bitan ere. Lan horiek euskarri informatikoan (Word) entregatzeaz gain, lanaren eta laburpenaren ale bana inprimatuta entregatu beharko dira.
- Ikerlana emateko azken epean, justifikaziorik gabe, lana amaitu ez bada, Udalak penalizazioaren bat jarri ahal izango dio bekadunari. Hala eta guztiz ere, Udalak baimena eman dezake aipatutako epeak luzatzeko, baldin eta horretarako arrazoiak daudela ikusten badu. Halaber, bildutako material guztien kopia (grabaketak, etab.) Elgoibarko Udalaren Liburutegian utziko da ikertzaileek erabili ahal izan ditzaten. (Horretarako, egile eskubideen jabeek baimena eskatu beharko zaie).
- Beka hau bateraezina izango da beste edozein ikerketa-beka edo lan finko osorekin. (Baldintza hau beka eskatzean bete behar da).

Ikerketak ekar litzakeen gastuak bekadunen konturakoak izango dira. Halere, Elgoibarko Udalak ahalik eta gehien lagunduko du bekari dagokion kudeaketan.

Diru-laguntzaren zenbatekoak inola ere ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua.

7. ORDAINKETAK

Ordainketa honela egingo da: %25 epea adjudikatzerakoan; beste %25 lehenengo lau hilabetekoari dagokion aurrerapena jaso eta Jarraipen Batzordeak onartu ondoren, eta gainontzeko %50 lana aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

Lana epeaz kanpo edota behar den moduan aurkeztuko ez balitz, beka baliarik gabe geratuko litzateke eta bekadunak azken zatia ez jasotzeaz gain, aurretik jasotako kopuruak itzuli beharko litzokie Elgoibarko Udalari. Horretaz gain, Udalak, sortutako kalte galeren ondorioz, dagokion kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

8. LANAREN JABETZA

Lanaren jabe egilea bera izango da. Edonola ere, Elgoibarko Udalak berarentzat gordetzen du, ikerketaren argitalpen oso edota zatikakoa egiteko eskubidea, baita normalizaturiko izenen erabilera ere. Kasu honetan bekadunak uko egingo dio egile eskubideak jasotzeari.

Elgoibarko Udalak lana argitaratzea erabakiko balu, horren berri eman beharko dio egileari. Udalak hiru urteko epearen barruan argitaratu behar du lana. Lehen argitalpen honen ustiapen-eskubideak Elgoibarko Udalarenak izango dira. Epe hau igarota, egileak bere lana argitaratzeko askatasuna izango du, beti ere izan zuen bekaren aipamena eginez. Era berean, Elgoibarko Udalak argitaratzeari uko egiten badio, egileak lehenago argitaratu ahal izango du.